

ku-me

kubo-futurismoa: Kontzeptu honekin arte errusiarrak munduko lehen gerraren aurreko urteetan izan zuen fase ebolutibo jakin bat adierazi nahi da, kubismoaren eta futurismoaren esperientziak oso estilo berezi batean elkartuz osatu baitzen. Fernand Léger-en garai bereko koadroekin badute nolabaiteko hurbiltasun bat. Objektuaren motiboa disdira metalikozko elementu formal zilindrikotan apurtzen da, eta erritmo ia makinal batek txikitu egiten du koadroa. Korronte artistiko honen ordezkari nagusia Malevich da, zeinak 1913an, "Die Zielscheibe" (tiro-blankoa) erakusketa ospetsuan, hainbat koadro tipikoki kubo-futuristak erakutsi baitzuten; bere ondoan aurkitzen dira, besteren artean, Burljuk eta Puni. Abstrakzio hutserrako bidean, horren aurreaurreko trantsizio-fasea izan zen kubo-futurismoa, eta gero suprematismoan eta konstruktibismoan gauzatu zen.

land-art: Gaur egungo arteak ideien arterantz egin duen eboluziozko prozesua bultzatzen lagundu duten arte-korronte berrietako bat da. Land art-ean espazio naturalak eta, berebat, industrialki eraldatutako paisajeak, konfigurazio artistikorako material egiten dira. Ordezkaririk ezagunen artean daude Walter de Maria, Mike Heizer, Dennis Oppenheim, Carl Andre eta Robert Smithson. Lurrazaleko bazter erretiratu eta jendegabetuetan —Sahara, Mojaveko basamortuan edo El Mirage laku kaliforniar agortuan—, artistek hilobiak industu zituzten, igeltsuzko lerro luzeak egin zituzten lurreen edota harri-pila handiak egin zituzten. Gizakiak orbandu gabeko toki huts, ixil, "erlijioso" hauetan (Heizer-ek esaten zuen bezala) utzitako giza presentziaren dokumentu hutsal hauek, argi dagoenez, hiri handiko munduaren artifiziosokiaren kontrakto protestaren lekutasuna izan nahi dute, plastikoen eta metalaren estetika pulitu beteginaren kontraktoa, baina baita "artearen utilitarismoaren" kontraktoa ere (Heizer).

Gainera, artistek jadanik ez dute paisajea produkzio eskultural baten fondo dekoratzaile bezala erabiltzen, eta; aldiz, espazio naturalen zabaltasuna hartzen dute benetako objektu artistiko bezala. Seinaleak jartzeko interbentzioak eginez, espazio hauen itxura normala beste konstelazio berri batean kokatzen dute. Espazio naturalaren konfigurazio artistiko eredugarri hauek ikusten dituenak, ulertzen du eraikuntzako azalpen hauetako bakoitza, adibidez errepede-sistema bat edota, berebat, arbol mozte eta luberritze-lanen bitartez lur birjinean egindako nekazaritza-lanak ere, prozesu konfiguratzaile bat direla, planeatutako

ekintza bat praktikan jarriz izadiaren ibilia aldatzen dutenak. Aldaketa horiek berdin gertatzen dira dimentsio handiko tokitan nahiz xehetasunik arruntenetan ere; horietako keinu aldarazle bakoitza eragin handiko faktorea izaten da gizakiaren eta ingurunearen arteko erlazioan. Land art-*ea* telebista-medioarekin oso lotua dago, horri esker izaten baita posible prozesu artistiko guztia tokian bertan filmatu eta *videotape*-ari esker nahi adina aldiz eman ahal izatea.

lau urdinak (Die Blauen Vier): Galka Scheier-ek *Blau* *Reiter*-ekin paralelismo bat bilatuz sortutako izen bat da, hain zuzen, berak bultzatu nahi zuen Feininger, Jawlensky, Kandinsky eta Klee pintoreen arteko elkartearen izendatzeko sortutakoa; elkarte horrek, izan ere, 1924ko martxoaren 31n sinatutako kontratuaren arabera, lau pintoreen obra eta arte-ideiak atzerrian zabaltzeko izan behar zuen. 1924ko maiatzean Estatu Batuetara joan zen Scheier berarekin eramanez entregatu zituzten obra guztiak. Lehenengo erakusketa San Frantziskon egin zen. 1926ko udazkenean erakusketa-jira bat hasi zuen Oakland-en eta Mendebalde guztia zeharkatu zuen Glaka Scheierrek ematen zituen hitzaldiekin lagunduz.

litografia: Gainazal lauaren gainean inprimatzeko prozedura bat da, zeinetan inprimatzeko plaka batekin egiten baita. Artistak harriaren gainean egiten du bere irudia tinta litografiko koipetsua edo lapitz litografiko erabiliz, eta harri hori, ondoren, goma arabigo edo azido nitrikoko bainu batean sartzen du. Harri-plakazko inpresio-sistema hau koipearen eta uraren artean sortzen den elkarren arteko batusinean oinarritzen da. Harriak, inprimatzen hasi aurretik urarekin bustitzen baita, urari iguin egiten dio dibujoa eginda dagoen zatitan, eta hala, arrabola pasatzerakoan, kolorea dibujoa duten zati horietan finkatzen den bitartean, tintarik ez du batere hartzen harriaren zati umedatu eta dibujorik gabekoetan. Prentsa litografiko berezi batekin egiten dira kopiak, harria eta papera lastre prentsatzaile baten azpitik pasaraziz.

littérature: 1914 eta 1924ko urte bitartean surrealismoaren lehenengo manifestu, dibujo eta literatura-lanak argitaratu zituen aldizkari frantsesaren izena da. Zuzendaritza Breton, Aragon eta Soupault-ek eraman zuten. *Littérature*-k bereganatu egin zituen aurretik aldizkari dadaistek erabili izan zituzten tipografia libre eta dibujo probokatzaila eta inkonformista haiek.

manierismoa: Literaturan eta arte plastikoen jadanik gainditua dagoen artea espresatzeko estilo bati ematen zaion deitura da; Errenazimentutik barrokora bitarteko eboluzio estilistiko italiarano izan zuen bere agerpenik garbiena, eta joera formalistaren exagerazio espresio artistikoan gertatutako motibazio espiritual baten galera kulturala ipilatzen du. Manierismoak formarekin egindako jolas estetiko hutsa praktikatu du, eta galdu egiten da dibujozko gehiegikeria bitxi eta filigrana metaforikotan. Gorputzaren errepresentazio amaneratu beti egoten da, dela pisugabezia

eta etereotasuneraino sotildua, dela masiboki handitua kolosalasuneraino iristeraino, errealtatearen bihurtze honetarako inolako motibaziorik izan gabe edukiaren aldetik. Afektazio formalarekin batera, eskala kromatikoak ere hautsi egiten du normaltasunak izaten duen itxuraren erlazioa; kolorea eta forma estilazio hutsari eusteko laguntza bat izaten dira, eta errealtateak, berriz, gai bezala hartuta, ez du batere garrantzirik izaten (ikus honi buruz G.R. Hocke, *Manierismus in der Literatur*, 1959).

merz: Ezaugarri horrekin ematen zituen ezagutzera Kurt Schwitters-ek bere arte-lanak, "Commerz und Privat Bank"eko iragarki batetik *merz* bukaera banandu eta bere obren izenburu bezala ematen baitzuten. 1923an idatzi zuen Schwitters-ek bere *Merz* aldizkarian bere *merz* arteari buruz; baliorik gabeko trasteak eta zibilizazioaren hondakinak erabiltzen zituen bere konposizioak egiteko. "Materialak inolako garrantzirik ez duenez, iruditzen zaidana hartzen dut koadroak eskatu ahala erabiltzeko. Material desberdinen artean aukeratzeko modua daukadenez, abantaila handia aurkitzen dut pinturaren aldean, honek oleoa bakarrik erabil baitezake, eta nik, izan ere, balorazio bat ezartzen baitut ez bakarrik kolore eta kolore, lerro eta lerro, forma eta formen artekoa, baizik eta baita material eta materialen artekoa ere, edo, are, egurraren eta arpilaren artekoa". Beraz, aurkitutako gauzak (*objets trouvés*), hala nola tapoi, boleto, bisita-txartel, seilu, alanbre, hari-puska, metalezko eratzun, eta honelakoak, Schwitters-ek bere ibilietan jaso eta gordetzen zituenak, guri zera auzalten zaizkigu, ez bere objektibitatean, bazterre botatoko halako edo honelako kontsumo-produktu bezala, baizik eta konposizio bat osatuz, gauzak azaltzeko posibilitate desberdinak multzoko ordenazio hala nahitako baten barruan txertatuta beti ere. "Materialengandik urruntze-prozesua lor daiteke orain koadroaren gainazalean ematen zaien banaketaren bitartez. *Merz* pinturan kajoi baten zain, joko-karta bat, egunkari-ebakina, gainazal bihurtzen dira; soka, pintzelada, lapitzaren arrastoak lerro bilakatzen dira; metalezko telak, ogitarteak biltzeko paper birpintatu edo pegatuak, bernizaren ordekoak egiten jartzen dira; guatazko forroak, pastositata..." (Zweemann I. koadernotik, 1919, hartua).

1923an bere "*merz* estruktura" egiten hasi zen Schwitters eta hamar urte eman zituen lan horretan: konta ezin ahala txoko eta barrunbez, horixe zen lan hau, gero Schwitters-ek hiriko zaborretatik jaso eta gordetzen zihoan hondakinak egokitzeko balio zutenak; estruktura horrek Hannoverreko bere etxeko bi solairu hartu zituen azkenean. Hannoverren kontrakto abioi-eraso batean, 1943an, suntsitua geratu zen bere etxe hori, eta etxearekin batera "*merz* estruktura" ere bai. Deserriratu zegoen bitartean, Norvegia, berriz hasi zen 1937an bere bigarren "*merz* estruktura" egiten, baina su hartu zuen 1951n. Alemanek Norvegia inbaditu zutenean Schwitters-ek Ingalaterrara ihes egin zuen, eta han bere hirugarren "*merz* estruktura" egiten hasi zen 1945ean. Azkeneko hau bukatu gabe geratu zen, amaitu baino lehen hil zen eta. ■